

## Adopzioan eragina duten eragile guztien elkarlanaren alde

Urriaren 21a.  
9:30 - 13:30

Europako  
Biltzar  
Jauregia  
Vitoria-Gasteiz

“Guk musika tresnak jotzen ditugulako da”, erantzun zion iritsi berria zen nesketako batek. Jarraian, biolina atera zuen, eta jotzen hasi zen, pertsonen bihotzetan zerbait mugitu zen.\*

Enara eta Martinen istorioa, pausu berri bat noiz eman.

- Idoia Arias Revuelta, Vitoria-Gasteizko Haur eta Gazteen Psikiatria Unitateko psikiatra.
- Estíbaliz Pérez Fernández de Landa, Arabako Hezkuntza Terapeutikoko Unitateko psikiatra.

Haurtzaroko eta nerabegaroko bi kasu klinikoren esperientzien azalpena. Kontsulta-arrazoi ohikoenen azalpena, psikopatologia ohikoak eta abordatze terapeutikoa. (Informazio gehiago web orrialdean).



Jardunaldiaren azken atalean, mahai inguru bat egingo da, eta bertan hizkariak, parte hartzaileak eta adopzioan inplikaturik dauden pertsonak hartuko dute parte, esperientzia arlo askotako ikuspegi bidez aberasteko.

Horrez gain, 3 eta 14 urte bitarteko haur zein gazteentzako jarduerak egongo dira

Egitaraua eta izen-emateak:  
<http://umealaiaa.blogspot.com.es>

Antolatzailea:  **UME ALAIA**  
adopzio-familien elkarteak  
asociaciones de familias adoptivas

Loguntzen du:



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala



**B**azen behin...

**B**aziren behin, hemendik oso gertu, eskolara lehen aldiz zihozen familia iritsi berriak...\*

Defizit kognitibo metagarria eta haren eragina ikasketa prozesuan.

• **Arantza Belostegui Durañona.** Hezkuntza-alarreko psikologoa. SUMMA Aldapetako Orientazio unitateko arduraduna. Hezkuntza eremuko aholkularia eta prestatzailea. Familia Eskolen arduraduna.

“Adopzio aurreko eta ondorengo bizipenek adoptatutako adingabeen garapen pertsonalean eragiten dute, bai eta eskolako egokitzapen-prozesuan ere. Maiz, ezjakintasuna dela-eta, gertaera horri garrantzia kentzen zaio, eta eskolan ondo egokitu direla uste da, baina egokitzapen hori itxuraz baino ez da ona. Egokitzeko zailtasun horren oinarrian Defizit Kognitibo Metagarria dago. Gabezia hori ezagutzeak eta prebentzio goiztiarrak ekarriko dute etorkizunean errendimenduaren zailtasun garrantzitsuagoak ez gertatzea.” (Informazio gehiago web orrialdean).

\* Ipuinak  
umealaiaa@blogspot.com -en  
jarraitzen du

Oso pozik zihozen, eta, bat-batean, harri handi bat goiko aldetik erori eta bidea itxi zien...\*

All you need is love...

• **Rosa María Fernández García.** Psikobiologia Arloko irakaslea Coruñaiko Unibertsitatean. “Entre hipocampos y neurogénesis. ¿Por eso le cuesta tanto aprender a mi hijo?” liburua eragilea.

“Gure garunak abantaila ebolutibo handiak ditu beste espezie batzuen garunaren aldean. Izan ere, jaiotzen garenean, gure garuna garatu gabe dago: gure garuna malgua da, aldagarria, plastikoa... Esperientzien bidez moldatu egiten da, eta horrek ikasteko aukera ematen digu. Fenomeno horri garun-malgutasuna esaten zaio, eta ezau-garri horrek, hain zuzen, egiten gaitu adimendun. Esperientzien bidez, sinapsi-eremuak (neuronen arteko konexioak) moldatu egiten dira, eta eraginkorragoak egiten ditu”. (Informazio gehiago web orrialdean).

Eskolara iristean, neska-mutil guztiak pozez saltoka hasi ziren, haur guztiak jolastokian abesten ari baitziren. Baina neska-mutil horiek agertu zirenean, isildu egin zen ahots goxoz osatutako abesbatza...\*

Adoptatuen nerabezaroa arriskuan: funtsezko beharrak eta estrategia eraginkorrak esku-hartze integral eta integratu bat egiteko.

• **Alberto Rodríguez González,** psikologoa eta psikoterapeuta. Egun, harrera eta adopzioan espezializatutako psikologoa Agintzarin.

“Adoptatutakoen artean (nerabezaroan bereziki) agertzen diren krisiek eta jokaera arriskutsuek zailtasun-adierazleak izaten dituzte; besteak beste, eskolan, harremanetan, familian eta maila sozio-pertsonalean izaten dituzte arazoak. Adopzio aurretik oso kalte esanguratsuak izan dituzten neska-mutilen artean, espero izateko prozesua da krisi horiek sortzea, eta abordatze integralak eta integratuak behar izaten dituzte.” (Informazio gehiago web orrialdean).